



Azpeitiko Udala

ESKOLA KIROLEKO TOKIKO PROGRAMA EZARRI ETA GARATZEKO PROGRAMA. (22-90D)

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an Kirol arloko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta lerro bakoitzari dagozkion espezifikokoak onartu zituen, bai eta 2022eko deialdia ere (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022/04/08an argitaratua).

Diruz lagundu diren lerroen artean Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako kirol arloko diru laguntza jardura dago A) lerroa, eta honen barruan Eskola Kiroleko tokiko programa ezarri eta garatzeko programa gauzatzearen kontzeptua A.1 lerroa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko deialdiaren barruan, Udalak 2021-2022eko ikasturteari dagozkion agiriak aurkeztu zituen 2022ko uztailaren 5ean.

Aldundiak 185/2022 Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoako Toki erakundeei diru-laguntzak emateko 2022ko deialdia A1 ebatzi zuen eta 2021-2022 ikasturteari dagokionez 17.116,00 €ko diru-laguntza onartu zion Udalari.

Herriko ikastetxeak urtez urte Eskola Kiroletako tokiko programa bideratzen dute Udalaren kirol sailaren koordinazioarekin. Programa honen finantzaziorako Udalaren eta Aldundiaren diru-laguntzak erabiltzen dira. 2022ko azaroaren 23ko datarekin Udaleko Kirol Saileko teknikariak Aldunditik jasotako laguntza hori herriko ikastetxeen artean banatzeko aldeko txostena eman du eta banaketa hori pisu haztatuaren arabera egin dela ziurtatu du. Diru-laguntzaren banaketaren proposamena honako hau da:

Banatuko den kopurua 16.881,37 € (Udalaren laguntzarekin gainfinantzaziorik egon ez dadin kopuru hau banatuko da).

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai (%59): 10.,017,00 €

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop (%28): 4.621,26 €

Iraurgi Ikastetxea (%13): 2.243,11 €

Dagokion aurrekontuan behar adinako kontsignazioa badago 1 0500.481.341.00.01 2022 "transf. arruntak eskola kirola" eta eskumenari dagokionean, berriz, apirilaren 21eko 11/1999 Legearen bidez aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua Alkateari ematen dio ordainketak egiteko ahalmena.

Esandako guztiagatik, **ERABAKI DUT:**

2020-2021 ikasturteko herriko Eskola Kiroleko tokiko programa ezarri eta garatzeko helburuarekin honako diru laguntza ordaintzeko herriko Ikastetxeei.

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai (%59): 10.,017,00 €

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop (%28): 4.621,26 €

Iraurgi Ikastetxea (%13): 2.243,11 €

Azpeitia, 2022ko abenduaren 12a

Nagore

2022ko abenduaren 12a

12/12/2022